

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

153n. Zenbakia Bagilla
Ekainilla
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



ARMENTIA'KO AGE-BURUA

- ERROMANIKU-TANKERA
- TXARKERIAREN KALTEAK
- ERRIAREN KONDAIRAN AGERGAIA

ERTZAIÑAK

Pozez ikusten dogu aspaldion gure bideak zaintzen eta beste arazo askotan geure erritar doguzan Ertzaiñen laguntza. Lengo bide-zaiñen eta guardien jokabideagaz aspertuta gengozan eta orain be noizean beñ bideetan aurkitzen doguzanean, euren arrokeria ez dabela urritu ikusten dogu.

Ez dogu uste izan bear, Ertzaiñak geure-geureak doguzalako, ez gaituela zigortuko, geiago oraindiño, iñoz erru barik zigortuko gaituela be jazo leiteken gauzea da, eurak be gizonak dira eta uts egin leikee-ta. Oñarri lez au artu bear dogu: Askatasuna gauza ederra dala, baiña guztion askatasuna zaíntzeko, legeak eta legea bete-erazoten dabenak bear dirala.

*

Legea ta askatasunari mugak ípintea onartzeko, norberak bear dau eldutasun bat erritar lez, eta errian be legeak egokiro egin bear dira, baiña erri-bizitza ezíña litzake lege barik eta legea bete-eragiten dabenen lana barik.

Legea bete ez dalako salakuntza egiten dauana, geure giroan bizi dan gaztea danean, errezago onartzen da, orregaitik aurrerapen aundia izan da ertzaintza gure errietara zabaltzea.

Eta oraindiño zabaltze au oso-osoan eginda ez da goan ezkerro, pozík entzuten dogu arlo orretan dato-
rren edozen barri.


Illuntasun bat agíri da etorkizunean, edo, obeto esateko, suzmo txar bat daukagu: Izukeríaren aurkako ardurak artzen dabezenean, zer egingo dabe izukeri-bidetik diarduen euskaldunak? Ertzaiñak be bardin eraso? Ori bai izango litzakela gure bideak eta etxeak odolez gorritzeko bidea, ori bai gure arerioak pozik íkusiko leukeen gauzea. Ez al da jazoko olakorik! Gure gazteak alkar ilten ikustea, samintasun barria litzake gure erriarentzat eta orain arte izan díran samintasun guztiak baiño samiñagoa.

* * *

Laiño illun ori sortaldean agertu arren, ertzaiñak gure erriarentzat itxaropen aundía dira eta zalantza barik, geroago erta obeto egingo dabe euren lana, erritarren eskubideak zaintzen dírala, etxeetara sartu bear dabenean, esaterako, bear díran baímenak ekarrita, etxeetan artzen dabezan gauzen barriak argi emonda, lekukoak bear dan lez artuta... eta or izango dira beste eskubide asko eta asko zaindu-bearrekoak. Erríaren itxaropena díra ba ertzaiñak, eta etorkizunean erriaren poza be izan bear dabe.

Olazar'tar Martin'ek.

Neure idazlan Bilduma



Kamiñazpíren liburu ederra. — Bizkaiera garbi ederrez egiña. — Bizitzako jakingarri ederrak.

Euskereari buruz íkasgai arduragarriak. — Fedea ta abertzaletasuna alkartuta.

Euskal-folklore ta gízarte arazoak. — Arraintza. — Kontakizunak eta...

GURE ERRIAK

Barruko bízitza

Barruko biziak garrantzi aundia dauko bakoitxaren bízitza. Or dago nortasuna, lortu dan jakintza, jokaerak eta gurariak, oíturak eta izaera osoa.

Dana da gizartetik artua, baiña norberak eiotzea egínda egokitua.

Dan orreri esan geinkio barruko bízitza. Eta jakiña da arlo onetan batzuk askoz aberastasun geiago daukela beste batzuk baiño.

* * *

Sendia

Baiña bakarrik biziteko egiñak ez garan ezkeru, bízitzaeren asieratik bear-bearrekoa dogu beste batzukazko artu-emona. Ezin geintez osotu besteakaz artu-emonen ízan ezik.

Lenengo aurkitzen dogun gizartea, sendia da. Lokarrí beroak eta barruko bízitzagaz zer-ikusí aundia daukenak daukaz sendiak.

Gero, alkar-bízitzarako berezkotasuna naikoa ez dan ezkeru, ezi-bearra dago eta orrelan sendiko alkar-tasunak indar barria artzen dau.

* * *

Auzoak eta erriak

Sendiak be, gizarteaeren oiñarria ízan arren, ez dira naikoa bízítza aurrera aterateko, auzoetan lenengo, eta errietan gero, alkar-tu-bearra dauke.

Erria da gure kondairan eginbear aundia bete dauan erakundea. Erría bai, baiña erriko sendietan oiñarítzen ízan dan erria. Eta errian aurkítzen dogu lenengo benetako aginpidea, naizta aundia ízan ez.

Erríak bere ordezkua aukeratzen eban eta ordezkariak joaten ziran Eskualdeetako batzarretara legeak egiteko.

*

Eskualdeak

Eskualdeak edo errialdeak be garrantzi aundia ízan dabe gure kondairan. Batzarrera joaten ziranen

erria guztiak osotzen eban eskualdea. Urteen joanean erakunde onek aldakuntza aundiak ízan dauz.

Eta batzarren bitartean lege orreik bete-azoteko, bertan batzarrean aukeratzen zan Aldunen taldea edo Aldundia. Gure aldundien kondaira, larría benetan, azkenengo irureun bat urtetan, euskalerriaren kondaira da.

* * *

Auteskundea

Gure kondairak ízan dauzan jokabide onek labur-labur gogoratu doguz, oraintsu ízan dogun auteskunderí buruz zerbaít idazteko.

Orain errigintzarako alderdiak, alderdi politikuak daukaguz, Euskalerrira kanpotik etorrítako erakundeak. Len be ba-zan euskalerrian oiñaztarren eta ganboatarraen jokoa baiña ez dauko gaurko jokoaren antz larregirik.

Errígintzara sartzeko gaur bide bakarra doguz alderdiak eta eurai eutsi bear dautsegu eta alderdien artan aukeratu erria aurrera aterateko, erriari benetako buru-jabetza emoteko, egokíena dana. Auteskunderen aurretik idazten dogu au, eta ez da elduko írakurleen eskuetara auteskundea amaítu eta gorago baiño. Ekintza oneri ondorenik jatorrena eskatzen dautsegu. Gure errietan asita dagoan aurrerapenak, gure eskualdeetan egiten dan lanak, jarraitu dagiala.

Bizkaían beti ízan dabe indarra Batzar Nagusiak, Gernika'ko Zugazpean batzen ziranak, eta aurrerantzean be garrantzí orrek jarraitu egin bear dau.

Eta beste eskualdeetan be, naiz Iparraldean naiz Egoaldean, antzeko jokabideak ízan dira: Gípuzkoa'ko errietan, naiz Arriaga'ko Kofradian, naiz Iparraldeko Izturíz edo beste erri batzutan, euskaldunak euren buruen jabe ízan dira eta orrelan jarraitu nai dabe.

EUSKERA

GARMENDIA ETA LASA'tar M.^a CARMEN'eri ESKUTITZA

EUSKERAUSKUTITZAKIAK

Idazki onekin, Elkarte onen Araudiko 2gn. atalaren bir-idatzia bialtzen dizugu, Erri Euzkera'ri buruzko ekintzak zeintzuk diran ikus dezazun.

Bertan ageri danez, gure Erakundea'k, 1.896'gn. urte gogoangarria artu du oarkizun bezela; urte artan argitaratu bai zun Arana Goiri'tar Sabín'ek 307 orialde ditun "Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaino" ízeneko ídaztia. Euzkera'tzaz egin dan idaz-lan ederrenetakoa, idazkera eraberitzeko oñarriak azalduaz. R.M. Azkue jaunak idazti oní buruz au esan zun: "300 urrezko orrialde ditun ídaztia."

Eskatu nai degunari indarra emateko, euzkera arazotzaz ídaz-lan asko bialdu genitzake, baiña naikoa ízango dira noski, adierazpen aundia duten íru eredu.

79-6-7'an Karmele Goñi'ren idaz-lanetik bi atal artu ditugu, ona emen:

Agintezko ta Legezko idatziak gure izkuntzan egín aal izan ziran bezin laister, lenengo Euzko Jaurlaritza'ren ardura aundienetakoa, auek, Euzko Jaurlaritza'ren Agintezko Aldizkarian (Boletín Oficial) euzkeraz argitaratzea izan zan.

Orainago, Euzko Batzar Nagusia (Consejo General Vasco) eratu zanean, gure Erria lan au íkusteko ítxaropenean zan. Gudaren eragozpenik gabe, așkoz errezagoa zala ta gogo biziz ítxaron zan Batzar aren Agintezko Aldizkaria. Ez alperrik! au eskuetara iritxi zanean ítxaropena etsipen biurtu zan.

Berezí degun urengo zatían, Intxausti'tar Jesus'ek (lenengo Euzko Jaurlaritza'ren itzultzailea) 80-12-25'an Koldo Lizundia'kin izan zun íkustaldia esandako gauza garrantzitsuenetakoa dakargu:

"Gure aurrenengo lanerako irizpidea, sort-eroen bilaketa izan zan, "Agiriak" euzkal senez beteakeizan zítezen. Benetan gure itzulpenak errez irakurtzen zírala derízkiot. Euzkal joskera galtzeko arriskuan arkitzen da euzkera. Erderatik datozen ítz asko erabiltzen dira. Garrantzitsuena, kaltegarriena, izkuntza bere gogorik, senarik gabe egiten ari dírala da.

Azkenez, Luis Villasante jaunak 87-9-1'ean, D.V.'ri esandako ítzak:

"El proceso de unificación de la lengua literaria no ha pretendido en ningún modo relegar el valor de los dialectos."

Ontaz au dakusgu; Batzar Nagusia'ren Agintezko Aldizkarian eta beranduago, Lotazila'k 29'an, aurkeztutako Euzko Araudia'ren egitasmoan erabilitako euzkera, bere erroak ematen duten bidetik egín bea-

rréan nolanaí eta nunaitik artuta egin dira. Euzkeran sustraítutako euzkera indartu bear da."

Elkarte onen sorkundea, gure arbasoak utzi ziguten EUZKERA bizirik iraun-azteko íxan da eta laister ETB.1'ean entzun eta ízparríngi ta ídatzietan irakurri aal izateko.

Gai ontaz galdera asko egin bearrean arkítzen gera eta bere erantzuera ítxaroten degu.

Auek dituzu galderak:

— (Urtean bein) Euzko Jaurlaritza'ren Agintezko Aldizkaria (B.O.) gipuzkeraz argítaratuko al zenu-teke?

— Laguntzarik ematen al díezute gípuzkera edo bizkaiera irakatsi nai duten Erakundeai?

— "EGA" ren azterketetan onartuko al zenítuzteke gipuzkeraz edo bizkaieraz egingo lutekenak?

— Euzkadi'ko alderdi bakoitzean ez al zenezateke bere euzkalkia aldeztu eta zabaldu, onela EUZKERA JATORRA bizirik íraun-aziaz?

— Izparríngi, aldizkari eta orrelakoai iragarkiak bialtzerakoan ezin al dítzute biali gipuzkeraz edo bizkaieraz eta baita Agintezko Aldizkarian argítaratu ere?

— Idatz-saríketak eratu Gipuzkoa eta Bizkaia'n (edo ta auek egin nai dítzuten Erakundeai laguntza eman)?

— ETB.1'ko ikus-irratsaioetan eta Euzkadi' irratico irratsaioetan ez al litezke, batzuek, gipuzkeraz eta bizkaieraz ízan?

— Zuen lanerako deietan, azterketak gipuzkeraz edo bizkaieraz egitea ezin al da onartu? (Deikunean adieraziaz).

Zerrenda au buka eziña izan diteke, ez aspertzearen urrengo idazkíetarako utziko degu.

Bukatzako adierazpena, orain argitaratu beria dan "Jakintsuen Euzkal Itzegia" ez degu ezertarako ízango, Agintezko Erakundeak (Organismos Oficiales) Erri Euzkera lagundu, zabaldu eta bultzatzen ez duten artean.

Zure Berrien zai, adérez agurtzen zaítugu.

ARZELUS'tar AMALE
ARBASOEN - IZKUNTZA - ZALEAK
ELKARTEA'ren LENDAKARIAK

BATUA BEAR ETA DA?

Euskotar lagun zintzo bateri biotzez.

Abertzaletasunean alkarrekín ondo emanarren, euskeraren alorrean naiz biok gure Ama euskera maite izan, ez degu bat egiten. Ori da euskotarrak daukagun aketxa, orrexegaitik gabiltza euskotarrak ain sakabanaturik, lau biztanle, amar eretxi desberdin. Zuk diozu euskera batua ona dela eta bera erabilí bear degula. Ník berriz, euskera batua bearko degula, bañan ez orain derrigorrian erantzi nai digutena, lenago gastelera sartu ziguten eran.

Zuk esaten dezu "euskera bat euskaldun guztientzat bear degula", gerora ori litzake egokiena, bañan ortarako denok norberen bertako euskalkia indartuz beartuke, euskalki oiek, Ama baten semeak díra guztíak. Ama ugaría eta aberatsa, euskera emankorra da eta benetan maite badegu, zugaitz oien adarrak ez dauzkagu aizkoraz ebagi eta sutara botatzerik danak zafndu geínzke eta era berean gaurko aurrerapenakin irrati, irratikuskin eta era guzitako laguntzakin alkarren artu emanekin berez berez etorriko litzake batasuna zugaitz indartsu ortatik adar egokienak berezi-tuaz emborra auldu gabe.

Lan orretan zebiltzan 1968 aurretik izkuntzalari trebeak oien artean R.M. Azkue, M. Lekuona, N. Ormaetxea eta aitatu ezín besteko "jakitunak" diot ník, bada orain ere Euskaltzaíndiko kideak eta batuzale askok áiek goralduez omenaldiak eskeintzen díete, bañan gauza arraroa batuzaleak dioten bezela, arri-garria benetan eskeintza oiek ez dituzte azaltzen omendutako jakítun aiek erabíltzen zuten euskalkian ez, arraioa, baizik batuaz azaltzen dute omendia, orduan zarrak eta txarrak ziranak orain gorenago mallara ígotzke kíñada egin eta dana konponduta legoke?

Lagun onetsi ori: zuk dínostazu geldítuta edo atzeratuta nagoela eta euskeraren alorrean beste gauza guztietan bezela aurrera egin bear degula, ori egí bíribilla da eta aurrera egiteko asmatzen diran gauza guzieí bere izen edo ezaugarritaz ezagutu bear ditugunak lortu bear dítzute izkuntza guztietan, era ortan saiatu zan Aranatar Sabin eta berari esker gaurko egunean ítz berri asko daude erantzita gure euskeran eta gein bat ondo sustraítuta, naiz telefono-ari, telefonoa askenengo atzíkia erantzita ondo arkitzen badezu.

Era orretan azaltzen díra oraingo euskera batuzaleen idatzietan ezin besteko ítzak errí euskera jatorrean betí gure artean íbilli diranak gaur bazterturik geratzen ari diranak. Telefono-ari, errutitzkin izena eman zion, ez noskí urruti-izkiña (esquinalejana) baizik urrutiz itzegiteko tresna (aparato para hablar a larga distancia).

Baíta ere esaten zídazun irribarrez, ea nola esango nuken solfeo euskeraz, eta adarra joaz esan, "ez aldezu esango eguzki motz". Solfeo edo solfa ludi gu-

zían darabilen izkuntza berdiña degu eta Sol-Fa oiek bost lerroen tartean dijoazten bi doñu díra, ludi guzían ezagunak, bañan solfeo ízkuntza guztietan beren esanaia dauke eta euskeraz "eres-irakurtze litzake". Beste itz batzuk ere irríparrez azaldu zizkidazun beste artean nolaz esan lezake: "departamento territorial" Erkaldeko lurraldea izan leike nere urteetan edo munen arteko lurraldea. Zure usteetan nolaz esango zenduke: Departamento territoriala? Aurrera-bide ortatik ez gera urruti joango, ez aurrera beintzat, bai goitík bera amíldegira eta euskeraren eríotzara eta azken arnasa ez da urruti izango zuk íñundik nai ez dezuna ezta ník ere.

Beste zertxo bat ere esango dízut. 1968garren urte-tik aurrera batuzaleak Euskaltzainditik M. Lekuona eta bere íngurokoak kendurik jabetu ziranean H'ak gure basoko gastañeditan xixak bañan ugariago azaltzen ziran, orain berriz "legortiaz ote" H'ak urritu díra bañan ez erabat eta íkasleak nun sartu ez dakítela dabilta, diptongo danean bear omen du, ez ote da ori tongo egitea?

Izki orrek zer on egiten dío euskerari, jantzi, edertu, txukundu ala alperrik izkuntza zaildu?

Ondarreta, ondarra, Ondarroa eta antzerakoak narribuzik azaltzen díra, zergaitik orduan agertu bear du Hondarrabi jantzi orrez eztalita? Lotsatu egíten ote da beren anaien antzera bere gorpuz garbia billosik azaltzen gure aurrean?

Erreztasuna eman egiozue euskaldun berrieri ikasketa luze orretan ostopoak bidetik kenduaz, íkasleak poztuko díra, Euskera berriz askatuago aurkituko da jantzí arrotz oiek gabe.

Lan polita eta egokia da Euskerazaintzak izparringietan azaltzen duana euskeraz gaízkí esanak edo itz berriak egoki nolaz esan lezaken irakurleeri galde-tuaz. Oneik orduan beren eritzia ematen dute eta erantzun egokiena aukeratuaz euskera garbítu osotu, aberastu, indartu eta txukunduaz gorutz joan leike.

Gure izkuntzak denon bearra dauka, ez diogun bada gure arnasa ukatu.

Etxe-kaltegarriena zuk esaten dezun bezela euskeraz jakin eta gure izkuntza bazterturik gure etsaiena darabilkina da, eta ník díotana ere, euskera obeagoa edo garbiagoa erabiltzeko era eduki eta setakeriz edo itxumenez bear ez luken bidetik jarraitzea.

Agur bero bat biotzez adiskide on orrí.

ARTOLAZABAL ILARI
ARBASOEN IZKUNTZA-ZALEAK
ALDIZKARITIK ARTUA

LARRAMENDI ETA SABIN

Deia'n, 90-12-21'ean, Martín Ugalde'k idatzitako "Larramendi eta Sabino Arana" izeneko idaz-lana irakurrita, zerbait idazteko bear-ean arkitu naiz.

Idaz-lan au luzea danez, adierazi nai dedanerako bear dedana besterik ez det artuko.

Berak dionez (Ugalde'k alegia) Sabin'ek, Larramendi'ren lanari akats aundi au arkitu zion batez ere:

"Erdal itzak euskaldunak bezela artzen ditula eta eratorriakin (derivados) gauza berdiña egiten duela". Baita "itz berriak sortzeko zuen joera okerra" ere salatzen du. "Itz erroak (etimología) jakinduri aundia eskatzen dutela, eta mantxo ibilli bear dala lan onetan. Bere iritziz, itz-erro lanean, Larramendi ta beste batzuek ariñegi eta jostaketan bezela-aritzen zirala".

Argi ageri da, Sabin'ek euzkera jator eusteko, irau nazteko egin zula lan guzia, akatsak salatu ba'zítun, euzkeraren onerako ízan zala. Aspalditik, ítz eta joskeratan sartuak zitun erderadak kenduaz.

Au argi utzi nai det, Martin Ugalde'k, idaz-lanaren bukaeran-díona aitatu baiño len.

Sabín'en iritziari buruz, onela dio:

"Sabinorenak ere bere denborak ziran eta gaur, orduko erizlari berari, kritikak egiten dizkiote hainbat alorretan. Normala dan bezela".

Bejondeizula! Larramendi'ri Sabin'ek arkitzen zion akatsa "erdel itzak euskera bezela artzea" zan. Orain Sabin "kritikatzen" dutenak, zer esan deza-teke? Jakiña, oraingoak nayago dute Larramendi, aren lana "erdel itzak euskaldunak bezela artze ori, bi-kain egiten bai dute.

Larramendi'k, zalantzarík gabe, aal zuen ondoen egin zun bere lana eta garai artan egiña ízateko, lan aundia egin zun, akats eta guzi.

Oraingoak beriz ez dute aitzekirik. Euzkera benetan maite dunak, argi íkusten bai du, oiek -"Sabin kritikatzten dutenak" alegia- darabilten euzkera, "euskeranto" ori negargarria dala.

Begira, adibidez, Martin Ugalde berak, idaz-lanean erabillitako itz batzuek. Aldamenean, EUZKERAZKO itza jarríko.

"Desagertu" -aienatu, aldendu, suntsitu; "Obra"-eginkaria, eginkizun, egíntza, idaz-lan, idaztí e.a. "Deribatua" -eratorria, itz-ondore; "Etimología"- itz-sorkun, itz-etorki, Itz-erro, itz-sustrai; "Fonetika"-ots-iztí.

Arazo ontaz kezkatuak ba'zerate, eta zuzentzeko zebait egin nai izan ezkeru, pozik artuko zaituegu gure Elkarte'n: ARBASOEN-IZKUNTZA-ZALEAK" 1067 Bidal-tokia - 287130 Urrutizkiña-DONOSTI.

AMALE ARZELUS ARRIETA

ONAINDIA TAR ALBERTO

Argiaren dizdira
suaren maitasunaz
nai neuke enegan;
Oi! ederraren garra,
ízkutuzko indarrez
nun, zabíltzaz egan...!

Zuurtasun gogoa,
izate bíkañean
eder da zuregan;
ítzen eratasuna
egiak argitzeko
beti, zeunkan zugan.

Etsaia gogortu zan
leoi ta otso lez,
beti, min garretan;
baíña zure itz garbia
edonun zabaldu zen
dízdira bizitan.

Paris'ko Urretxindor,
zapalduen babesa,
orioz igurzten;
itza bakarra ízan zíñan
Kristoren irudian
egiak esaten.

Jaungoikozko arnasa,
zurea dozu lurra,
zureak gizonak;
zuk argitu zenduzen
aín seme berezia
ta onen almenak.

Gizontasun ta egí,
guda eta bakean,
zenduzen gidari;
zure itzaren indarrak
dardara eragiten
guzur bideari.

Milloika gízonek
artu eben argia
estura aldian;
milloika biotzek
eskertuten zaítue
egi izenian.

Itxasoa letz zara
sakon ta zabal aundi
ondorik gabea;
urdir ipar aizetan
gogoa egaz dozu
adorez betea.

PAULIN

BILBO'KO ATHLETIC, GORA ETA BERA

ATHLETIC-ZALEAK

Azken aldijetan Euzkal-erri'ko diren egunkari, urrutikuskin, irrati eta zabalkunderako doguzen bide guztijetan, astrapalada itzelak dabiltzain maite eta gurea dogun Bilbo'ko Athletic dala eta ez tala.

Athletic antziñatik ezagutzen dogunok, ondo ikasita daukagu ostikolari orren taldeko kondaira. Eztakit ba, orain diren kirol idazlari eta irrat-izlarijen artean, danak ete dakijen 1936'garren urtetik arantz Athletic'en kondaira, ba, enaz gomutatzen noiztik ona irakurri eztodan aldi aretako barririk eta, gazteak izan ala kanpotik oraintzu etorri barrijak diralako, asko dakijenik ez dot uste. Eta ori olan ba da, ezer ikasi gura dabeenak, or daukiez, idaztitegi, idazti-saloki edo liburu dendetan "SAN MAMES, LA CATEDRAL" izen-buru pean argitaratu ziren liburu batzuk eta bertan ikusi eta ikasiko dabe, Athletic'ek bere bizitza luzean beti izan dauzela aldi oso onak, onak eta aiñ onak izan eztirenak be.

* * *

KONDAIRA

Ni gomutatzen naz 1922-23 garren urtean "Copa'ko" txapeldun geratu zirela, Barcelona'ko EUROPA taldearen aurka azken ostikoketa jokatuta eta 1-0 irabazi ondoren.

Gero or ibilli ziren bost edo sei urtetan taldea barriztu bearrean eta, jokalaria asko aztertu ondoren. Lazter batu eta alkartu eben talde oso on bat. Blasco; Castellanos eta Urkizu; Garzubieta, Murgertza eta Roberto; Lafuente, Irarragorri, Bata, Txirri eta Gorostitza izan ziren amaikako talde oso ona bete ebenak. Gero, Castaños, Zilaurren Zubíeta, Izpizua eta beste batzuk etorri ziren... 1928-29 garren urteko "Ligan" txapeldun izan ziren eta "Copan" azken erdiraño eldu. Eta 1929-30 gn. urtetik asi eta 1936 gn. urterarte izan eban, ni-

retzat beintzat, Athletic bere bizitza osoan izan dauen talde ta aldirik dizdiratsuenak.

1929-30 aldijan, txapeldun "Ligan" eta txapeldun "Copan". Urte onetan "Liga"ko txapelketa irabazi eban, ostikoketa edo partidu bat be galdu barik. Urte berean Barcelona'ri amabi gol sartu eutsoezan; Donostia edo Real Sociedad'eri 6; Alaves'eri 7; Real Madrid'eri 6; Racing'ri 7; Logrones'ri 6 eta abar eta abar. 18 ostikoketa edo partidutan 73 gol sartu ebezan eta eurei 33. Gol egille oso onak ziren, orduan golak egitera jokatzen zan da.

1930-31 "Copan" txapeldun eta "Ligan" txapeldun izan ziran.

1931-32 "Copan" txapeldun eta "Ligan" bigarren.

1932-33 "Copan" txapeldun eta "Ligan" bigarren.

1933-34 Azken-laureneta eldu ziren eta "Ligan" txapeldun.

1934-35 eziran aiñ ondo ibilli.

1935-36 "Ligan" txapeldun eta "Copan" azkeneko erdirjetara eldu ziren.

TALDE ONAK

AU DA, ZAZPI URTETAN, LAU ALDIZ "COPAKO" TXAPELDUN ETA BESTE LAU "LIGAKO". ETA "LIGAKO" TXAPELDUN GERATU EZIRENEAN, BIGARREN, LAUGARREN EDO LEKU GOIENENGOETAN GERATZEN ZAN IA BETI. BA DAGO IÑOR ORREN BESTE "EMOTEKORIK"? Kontutan artu edo gogoan eroan bear da, aldi aretan, Madrid'ek, Barcelona'k eta beste askoren artean (Donostia, Santander, Oviedo eta abar) talde oso onak ebezan, baña guztijen gañetik, Athletic agertzen zan ia beti.

Eta ori izaten zan, jokalaria bat be ez ebelako salduten.

KIROLAK

Gerotxuago España'n anaiarteko guda odoltsua antolatu ebenean, Euzkal jokalaririk onenak eta euren artean Athletic'eko geienak Euzkadi'n berezitatukoaren artean Europa eta Mundu zabaLEAN jokatzeraz joan ziren.

Banakaren bat itzulitu zan baña geienak Mexiko eta Argentina'n geratu ziren. Euzkadi'ren izena oso goian jarri eben. 1937'tik 1940'rarako urteetan ezan ostikoketarik izan. Izpizua eta Castaños, beste batzuen artean, gugaz, espetxeetan, atxilotuta egon ziren.

* * *

JOKOLARIAK SALTZEA

Geroago be Athletic aldi eta talde onak eta ez aini onak izan dauz. Gipuzkoa, Araba eta Bizkai'ko talde onenetatik ekarten ebezan jokalaririk orduan. Oraingo aldi-jetan, orrean ganera, Lezama eta Naparra daukiez iturburutzat eta, orregegitik, etorkizuna ez da ain illun ikusi bear.

Athletic'en egin bear dana da, Euzkadi'n sortzen diren jokalaririk onenatarikoen artetik, al diren geienak Bilbora ekarri eta on-onak egiten direnean, bat be saldu ez ba, jarraitzalleak goirengo malletan eutsiteko talderik onenatarikoa gorde edo iagon bear da. Besteak daukijen diru aña ez ba dogu, aditaldu eta ikusi nondik egin leitekezen diru aurreraketak eta ez jokalaririk onik saldu. Garai, Alexanko, Zubizarreta, Txirri, Ferreira, Uralde eta ainbat lenengo malletan jarraitzen diren jokalaririk on saldu dira, eurek joan diren taldeak indartu eta Athletic motelduteko.

Azken urtean be atzelari on batzuk saldu ziren eta euren artean, erdiko atzelari on bi edo iru. Erdiko aurrelari on bat bear zala ta, á ekarteko beste jokalaririk batzuk be saldu ziren. Orixe egin zan eta zer jazo da gero? Ba, Andrinua zauritu zanean ez egoala beste atzelaririk eta golak sartzeko ekarri zan erdiko aurrelari orrek atzelari lez jokatu bear izan dau. Ori izan da Athletic'ek egin dauen uts edo porrotik andijenatariko bat.

Eta ori olan izan ba da, ez dogu zertan saiolarija edo jokalaririk errutu. Errudun danak erantzun bear dau olakoak jazoten direnean. Orretan

erantzun bearrekoak direnak beste bide batzuetatik aurkitu bear dira.

* * *

ZALETASUNA TA IRABAZTEA

Niretzat, talde ona dagonean, ikuslariz goigoraño betetzen dira foot-ball zelaiak eta talde onik ez dagonean, igeslari larregi agertzen da. Sartzeko txartel-saltegijetan itzelezko berakadak izaten dira eta ortxe dago argi eta garbi, zergaitik izaten diren diru beartasunak. Orretan ibilli garenak, ostikoketa dala ta, badakigu zeozer.

Erri txiki baten, goian, lenengo edo bigarren lekuan euren taldea aurkitzen zanean, talde-laguntzea, edozein erritara joatean, iru edo lau bus bete-beterik joaten ziren.

Bear bada, irureun laguntzalle joaten ziren, baña erritxo orretako taldea, urrengoan, txartotxuago ebillela edo ta, jokalariek, bi edo iru zuzendari eta iru edo lau laguntzalleek joan bear izaten eben bultzian edo al eben beste edozein joan-etorteko burdiren bitartez.

Ori sarritan jazoten da eta min andija egiten dau aurretik ibilli bear direnentzat.

Orduan izaten da unerik egokijena lasaitsu, beargin eta benetako kiroltzale diren gizonen nortasuna neurritzeko. Edozein arazotan eta gauzak ondo doazenean, ez da goimalletako gizonik, bear; gizon andijak bear izaten dira, gauzak okertzen asten direnean. Emen oso argi ikusten dana da, jokalaririk onenatarikoak bear direla. Onenak al bada... eta orrek, beintzat, iñori saldu barik.

* * *

ERRUDUNAK

Saioen zuzentzallea, irakasle ta sikologo on bat izan ezkerok, biderik erdija baño geiago eginda dago; beste erdija, jokalaririk euren alde-tik ipiñi bear daben azkartasun eta sendotasunagaz bete bear da.

Saioen zuzentzallek, ez daba taldeetan jokatzeko eta euren lana betetzen da, jokalarijek bear dan neurrian saiotu eta euren gorputzak al danik sendoen zaindu; talde barruan al dan anaitasunik zintzoena gorde eragin eta arau-bideak bear diren lez bete daitezeko, zur ibilli. Ez gogorkeririk erabili, ba bide orretatik etorten dire, egoki ez diren akatsik andijenak.

Ikastoletan be, irakasleak irakasten dabe eta ikasleak ikasi. Gero, ikasleak azten direnean eta lanen bat egiteko sasoiak eltzen jakenean, euren izan bear dabe nor diren edozein lekutan erakusteko, ondo ikasi dabezan ikasketak.

Ori ondo egiten bada, ez dago inor errutu bearrik.

Lezama oso ondo dagola esan bearrik ez dago; diru larregi eralgitzen dala edo ta, ba dago

Athletic'en nok begitu bear dauen. Beste Euzko ostikolari-taldeekaz dagoen anaitasun eta alkar-tasuna be oso ondo dago, Athletic'en ondorenik onenak barriztuteko. Jokalari onak bide bi orreitatik lortu bear dira eta eltzen direnean, gogoan izan, EZ DIRALA SALDU BEAR. ZINEZKO BEAR DIREN ITZARMENAK ARTU ETA ALDE BIJOK, JOKOLARIJEK ETA BILTZARRA, POZIK ETA ZIURTASUN OSO-OSOAN JARRAITU DAGIELA. BA DAKIGU DIRUA DALA GURE ARTEAN DABILLEN SASIJAUNA, BANA, ORI GAINDUTEKO BEIZANGO DA BIDEREN BAT. BIDE ORI AURKITZEN ALEGINDU BEAR LEITEKE BA ORI LORTZEAN, ESKUETAN IZANGO DA AIN GARRANTZI ANDIKO DAN KALTE GUZTIJEN GARAIPENA.

KEPA

ZUZENDARITZAREN OARRAK

Arpidedun asko dira aurtengo ordaina, 1200 pezeta, Banku edo Aurrezki-Kutxako kontu idegiaren bidez eta txeke bat izenpetuta bialdu dabenak. ZER aldizkariaren izenean eskerrik beroenak emoten dautseguz. Oraindiño ordaindu ez dabenai, eskari bat: Ainbat lasterren ordaindu dagiela, biderik egokiena esan dogun ori dala.

Bilbo'koai etxean eskatzen jake, baiña errietakoakaz arazoak izaten dira.

* * *

Aspaldion diardugu esaten, idazleak urritu egin dirala eta agertu jakuz len ainbeste idazten ez eben batzuk, baiña gitxi oraindiño. ZER aldizkariaren orriak beteteko sarritan larri ikusten doguz geure buruak. Ea ba, idazleok, batez be bizkaitarrak, kendu nagikeria eta artu gure idazle zarrak biztuta eskuetan itzi dauskuen zuzia.

Aurretiaz eskerrik asko.

Zuzendariak

NEURE OLERKIGINTZA

Nobere bizitz-azkenerantza, aurretik emondako oinkadak astiro zenbatuz, edozein arlotan noberak egiñiko lanari begitu atsegiña botarik, atsedean pizkat artzea bai jakula eder. Ni neure bizitzan, beste gauza askoren artean, olerkigintzan be, euskal poesi-gintza ain zuzen, jarduna nozu. Eta Zornotza'ko Udalak, 1989 urtean egin eustan omenaldirako, nik urteak zear, 1929'tik ordurarte ondutako bertso-lanakaz OLERKI GUZTIEN BILDUMA argitaratu eban Julen Urkiza karmeldarrak, 315 orrialdeko liburu mardula. Juan Mari Lekuona'k egin eutson itzaurrea, olerkien gaia ta egiturak zakonki azterturik. Eta onek, ni olerkiok egitean nundik nora ibilli nintzan jakin nai ebala, itanduten eban. Gurari batzuk, barriz, ixillean geratzea egoki ez dan ezkerro, beioez emen lerro ta argitasun oneik.

Lenengo ta bein irakurleak jakin bei ni ez nazala izan olerkari "profesionala". Aldizkari bi izan nebazan neuk sortu ta zuzenduak; lenengo "Karmengo Amaren Egutegia", gero "Karmel", gaur be, dotore ta jori dabillena; eta "Oleri", eragozpen askoren artean be, oraindik bizi dana. Eta sariketa ta konkurtsu batzuetatik kanpo, aldizkari bi orreitarako ziran nire bertsoak, ari-arin idatziak geienak.

Ementxe, Larra'ko konbentu onen aurrekaldean karmeldar Ikastetxean egin nitun nik, beste karmeldar gazte askok lez, neure lenengo eleiz-ikasketak; irakasle onak euki nebazan, Aita Ermenegildo Manzisidor, lemoarra, Aita Anjelo, Aita Anjel, oraindik Santander'ko gure komentuan bizi dana, Aita Erroman gure Zuzendaria, nazionalak fusilatu ebena, eta besteak. Azkenengo ikas-urtean, 1926'an, nobiziadu urtea asi aurretik, Aita Gotzon'ek lagunduta, asi nintzan euskal poesi laburrak egiten; gaur ez dakit nun diran lantxo orreik; ezta Markiña'n, aurreragoko ikasketak egiten niarduela egiñak be. Gazteiz'en

(1929-30-31) egiñetatik batu- ditut batzuk "Mendiruntz" Toloda'ko (1929) bertan barruko aldizkari "Renacer" en Karmel'go Artizarra, "Karmen'go Argia'n ainbat eta "Yakintza" n datozenak. Gudarien kapellau frentetik bialdu nitun banaka batzuk "Euzkadi" ra eta "EGUNA" ra; guzti oneik esandako bilduman daukazuz; baita "Oinñazez nago", "Ixilarren", "Illuntzean", "brefl", "Maitasun-oiotsak", "Bere ereskin-ekaiak" eta gaiñerakoak; "Ur, ur" Pisuerga ondoan atera neban, eta Karmona'n be ez gitxi. Eta emendik agiri danez, zoritxarrean naiz onean, beti ekin izan dautsot olerkigintzari.

Kartzelatik urtenik Santander'ko Hoz de Anero'n nengoala, laster asi nintzan leiaketak ziran lekura lanak bialtzen; or asi-barri zan "Egan'en, nire olerki saritu bat, "Zori-ala", eta gero geroakoak, Horazio'ren odak euskeraz eta abar. Gañera 1951'garreneko garilla 16'an Karmeldar Kuntuna'ren Zazpireungarren urteurrena zan ezkerro, mundu guztia ebillen jazokun ori alik eta ondoan ospatu nairik, liburu, aldizkari, itzaldi ta aparteko jaiez. Orrek bizkortu ni be luzaroko bizia izango eban errebista ori sortzera. Aldizkari mardula. 130 orrialdekoa, 20 x 14 tamañukoa. Askoren lanak ekazan, itz-lauz, poesiz; musika, argazki ta abar. Illez-il banatuta danetik ekarren: eleiz-gaiak, ordenakoak, ipuiñak, egi-birillak, umeentzat, adiñekoentzat, baserri-gaiak, eraspennak, esaera zaarrak, naski-naski, labur... aldizkari bizkorra, jakitez betea. Laster zabaldu zan Euskalerrri osora, arpidedun ugari egiñik. Gaur euskaldun jator diren asko, besteai ezer kandu barik, "Karmel" aldizkaria irakurritz egiñak dira; eredu lez, itandu gaur Euskal Jaurlaritzan euskal kultura daroen J. Arregi eta Garmendia legazpiarrari adibidez.

Or atera nitun nik olerki asko, bertsoak errebista bete ta dotoretu dagikela-ta. Gerra aurretik

zan poesi-zaletasun bizia jarraitzen eban oindiño be. 1954'an "Milla euskal olerki eder" argitaratu nebanetik batez be ugari-ugaria zan olerki-zelaia; bertso-lan asko etorkidazan. Eta espaiñeraz "Caracola" ta antzekaok egozala ikusirik, zerbait egitearen gogoia biztu jatan; 1959'garren urtean jaioa dogu "Olerti", bere garaian Euskal olerkari ugari ta onak sortu ta aurrera eroan zituna. 1959'ko urterillaletik 1970'garrenaren azkeneraño, naizta zoztor ugari birrinduta, polito bizi izan zan, oraindiño be agertzen jaku, baiña ez leen baizen jori ta bizkor.

Aldizkari barri au gizarteratzean, antxiñako oitura bat barriztatu besterik ez neban egiten. Euskaldunak maite dau bertsoa. Begira aurreko prentsa, Donostiko "Euskalerrria", mugaz andiko argitalpenak, Bilboko "Euskalzale", "Ibaizabal" Iruña'ko "Zeruko Argia". Zornotzako "Jaungoizale" ta "Karmengo Argia", "Jesusen Biotzaren Deya", "Euzkadi egunerokoa, eta besteak, prosaz eta itz-neurtuz beteak. Goituz joian olerki-leia eta etziran naikoa egoan bertso-lan guztia agertzeke, barriri diñot, nasai erantzuteko. Utsune bat argi nabarmentzen zan.

Orixegaitik sortu zan "Olerti", ogetaz urteetan beintzat lan bikain-bikaiña burutu ebana. Ementxe idatzi eben gerra-ondoko olerkaririk geienak, beti pozik eta asmotsu. Geroago. "Batu" eragiña dala-ta, nik iñoz be bereizketarik egin ez, urritu egin jaku olerki-zaletasuna, eta gure olerkari pamboxak be, leiaketa ospetsu batsuetara ezik, ez dabe lanik bialtzen; olan bertso-lan indartu egin delarik olerkaritza zimeldu egin jaku.

Nik urte luzeetan ekin dautsot olerkigintzari. Or neuk be uste ez naban beste lan "Olerki Guztien Bilduma" liburuan. Orrez gaiñ ainbat itzulpen dira "Olerti" eta "Karmel" aldizkarietan. Ainbat itzulpen, R. Tagore, Bergili. Horati'ren ona ta epodo; olerkiari buruzko lanak ez gitxi.

Eta jakin-min danak jakin dagian, ez dira beti aise ornitzen aldizkariaren goi-be ta ertz guztiak,

orixegaitik, olerkitxoak egoki datoz utsune orreik beteteko. Olan maminduak dituzu nire bertso-lantxo ez gitxi. Ez nozu, ba, olerkari profesionala. "Aita Santiren olerkigintza lan mardula da eta luzaroko alegina; 1988 artekoa -diño J. M. Lekuonak-. Pentsatzen dugu, bizi-bizi dagoenez, aurtan are abesten diharduela Larrako galeperrak Hirurogei urte euskal poesigintzari etengabe emanik. Hala ere, dena ezin izan neurri berekoa: bada landurik, bada hain landua ez dani. Bada aldian-aldiko kanturik, bada arras beteko libururik. Bada autorearen historia hobeto ispilatzen duen piezarik; bada nortasun poetikoarekin lotura txikiagoa agertzen duen bertso-sortarik". Nik adierazoa kontutan eukirik, ondo esana dagoala deritxat.

* * *

Eritxi emoillean gaiñerako esan guztiak be, zentzun osoz emonak dira. Urteak zear euskal poetikaz zerbait idatzi dodan-arren, neure poetikari buruz ez dot iñoiz be ezer idatzi; obeto esateko, etorrenari ekin izan dautsot, olerkaia ta olerkariak zelan jokatu bear dauan, ez dot iñoz azaldu. Ez neban olako asmorik, bakotxari itxi neutson bere kasa lan egiten, eta "Olerti"n daukazu euskal olerti eredua. Oso ugaria nunbait.

Onela idazten dausku eritxi-emoillean: "Olerkari eta olerkariari dagozkienetan, gerraurreko eta gerrosteko poesiari buruz izan diran eztabaidak kontuan hartzen baditugu, iritzi odo garbia du gure autoreak: "oberik jagi arte gizaldi onen barruan Lizardi, Orixe, Lauaxeta... dira jainko nagusi".

Maisuki aztertzen ditu gero nik darabildan euskal metrika, ots, eskema matrikoak batez ere, eta eredu en ugaltasuna, lau ko txiki ta nagusiari aparteko balioa emonik. Estrofak ondoren, libreak, sonetoak, poema bakotxari bere neurkera. Errezitatze ko gei ago dirala diño, kantatzeko baiño, kantagarri ez diranik esan gabe. Joskera

ELERTIA

eta erritmua bat ez etortea maiz jakiñez egiña da: Orixe'ri ez jako eder, entzumen oso gozokoa zan-eta, zortziko nagusiaren ots bardiña. Ni be, alegiñez, urrundu egiten nintzan olakotik. Egia, esan ez jatan atsegin estrofa luzeegia labor-zalea dozu euskalduna, itz-lauz naiz itz lotuz.

Olerkia beti dozu jantzi apaiñekoa; Biblian asi ta monduko izkuntza guzti guztietan, bertsoz idaztean, idazleak beti jo dau metafora, antz eta irudietara; oneik olerkaria lez irakurlea be, biztu ta zoro-azi oi dau, Poeta batzuk eurrez darabillez apain-gailluok. Gurean Lauaxeta'k asko darabil, Orixe'k ez ainbeste; emen be zentzunak eta olerki-gaiak ba-dau zer ikusia. Onetan Europa'ko olerkigintzari begiratur bada aldakuntza ez gitxi, sartaldean beintzat; sortaldean ez ainbeste; Evtuchenko errusiarrak, esaterako, irudi bat edo jazokun bat geienik, orrekin biribildu daroa bertso-lan txanbeliña. Poeta batek sarri, gaur batez be, errez aldatu oi dau bere olerki-pentsakera. Nun gorde da gure urte gitxiko poesi soziala?

Pozgarri izan jat "alegoria" eta onen joera. Eta au damosku Lekuonak: "Poemetako protagonistak behin baino gehiagotan izadiko irudiak dira gauza xumez osaturiko mundu bat. Hauen historia ez da kontatzen agerian, azpi-azpian baizik = sinboloen mila ñabardura aukeratuz, giza-bizitza antziruditzen da eta ispilaten, naturako gertakariak giza esistentziarekin lotuz, irudien ordezkotasuna giza-izaeran lokalizatuz. Eta azkenik, irakaspén ezkutuko bat nabari da poema askotan, irudiaren ederra, etika ta onbide gertatzen delarik, ezkutuan behintzat".

Gero, nire alegori batzuk islatzeko, "lorei", "Ontziska ta ekaitza", "Oi, eiztari" "Begian malakoa" ta besteak aztertzen ditu, "funtsean alegorizazioak ditugu, mila modutara emanak, kondaira eta zehaztasunen gainetik lirismoa gainditzén dela, eta irudietan protagonismoa eta mezuaren islatzen estetiko" esanik amaituz.

Nik baserritar izanik, kutun izan ditut beti lurtar irudiak, izaditik jasotakoak... Jakingarri da eritxi-emoilleak bertatik diñoana, izadiaren per-

sonaltzeari buruz ain zuzen be. Irakur: "Naturako irudiei protagonismo bat ematen badiegu, hauek irakaspén bat eta iorana sorten badute gure bizitzari buruz, ez da harritzeko irudiei pertsonaren egite bat ematea; eta olerki alorrean gaudenez, gure bizitzaren alderdi poetikoak irudi orietan ikustea, eta analogiaren bidez, gure giza bizikizunerako argibide gertatzea. Irudiak irakurri eta gozatzean, eta hobeagotzen giza esperientziak".

Azkenik, gudarien inguruko poemak aztertzen ditu; onako asko osotu bai nitun iru bat illabetean Elgeta'n, Bizkargi'n, Sollube'n, Artxanda'n eta Enkartaldean gudariakaz illen eta zaurituen artean bizi izanik. Naiz-ta orreitatik batzuk geroago idatziak izan, bizi-bizi nerabilen oindiño su ta tiro artean momentu arriskitsu areitan jazotakoa.

Amaitzeko, eder jako "nire baserria" deritxon euskal poema, 1975'an Gipuzkoako "Camara O.S. Agraria"-k eraturiko "San Isidro Saria" eskuratu ebana. Nik poema luze onetan, lau zítitan banatutakoan, gure baserritarren euskal bizitza arrunta kantatzen dot lau-lau, baiña Lekuonari ederra dala iruditzen jako. Au dio: "Mardula, arnas haundikoa..." Poema nagusia da, baserria kantagai harturik landua. "Etxe hitzaren etnografia eta etnologia dira hari albainuak". Sariketa baterako lana zan ezkerro, ertzak ondo dotoretu bear. Garrantzi geiegi emon barik, alan be.

J.M. Lekuona Euskaltzain-buru ordea, poeta danez naiz eder-lan kritikari, beti azaltzen jaku umo ta zentzundun. Beronek diñosku: "Oraindik azterketen zai daude: Etxaniz, Gaztelu, Bordari, Monzon, Muniategi, Iraizoz, Zaitegi, Kerejeta, Ugarte eta beste gehiago". Niri egiña lango lan sakon, zogi bat orrei be olango azterketa jakintsu bat, pitxi onek eta ez ain onak bereiziz egiña ba'geunka, bide obez leioake euskal poesia. Amasei orrialdekoa da Lekuonak nire "Olerki Guztien Bilduma"-ri egigiko azterketa. Eskertzekoa, beraz.

Aita ONAINDIA

NASTE-BORRASTE

Ain eder izan zan eta oso ondo bizi geinteketzen Ludi onetan, txarrerako antolatzen diren ainbat eginkizun dirala ta, emen gabiltz, gure gizarte zoro au osotuten dogun guztijok, alkar ulertu eziñik. Sarritan or sartzen gara eztabaida amurrutu batzuen artean eta, ondoren, basati baño gogorragoak diren guda larregi antolatzen da, gu, alkarren artean ilten ibilli gaitezen.

Gure asabak, ikasi eta ikusi dogunetik, itzar-men bat lortu eben gure auzoetako diren erri batzukaz eta itz-emote ori zuzen edo gizonki alde bijetatik gordetzen zan artean, ez genduan Euzkal-Errijan orain dogun eztabaida eta gorrotorik. Urteak joan eta urteak etorri, Gernika'ra etorten ziren gure auzo-erri'ko Errege ta Erregiñak, gure Lege-zarrak gordeko zirala ta, zin egiten. Baña, beti lez, zin-apurtzalle'ari eldu jakon bere txanda eta ordutik ona, gure Euzkadi beti bizi izan da eta bizi da ondiño, lapurketa bategaitik kendu edo ostu euskuezan azkatasunen billa.

Nire bizitza luze osoa, ia ia, ementxe igaro dot eta orrexegaitik ondo dakit zergaitik, gure ain garbi eta eder izan dogun Euzkereak atzerakada itzelak egin dauzen. Oraingo aldijetan or dabil sasi jakintsu mosolo asko, euzkaltzale zintzoak euzkerearen alde egiten dabeen danari, oztopoak ipinten. Len, orain eta beti Euzkera'ren arerio amurrutuak izan dira eta ondo dakigu zelako bi-deetatik ebiltzen euren asabak be, euzkeldun gizajoei euren Gaztelerea sartzeko. Eta guk, aien lana, ontzat ezin artu dogun lez, iñondik ba ez dogu gura, Euzkerea, su, "egur" eta odol bitartez, iñoren barruan sartu. Euzkerea'ren alde zeozer gaiago egin bear leitekela ez dogu ezeztauko eta, len aitatu dodazen mozolo guzti orrein esanei gor egin eta, jo ta ke, ekin bear dogu gure Abe-

rrija al dan ariñen euzkaldundu daiten. Gaur Munduan ikusten dana asmaturik eta Euzkerea gurea dala jakiñik, gure elea'ren aurkakoei gor egin eta ea euzkakijak be, guztijon artean, aurrera ataratzen ba doguz. Euzkakijetan ei dagoz izkuntza guztijen sustrairik sendoenak eta ori jakiñik, edozer ondo egiteko, asmakizunik onena izango litzake, gure ekiñalkijak oiñarri sendoetan jarri. Gu beintzat, ez gara Bizkai'ko euzke-reagandik aldatuko, **BIZKAI'KO EUZKALKIJA DOGULAKO GURE BETIKO EUZKERIA.**

Eta izkuntza aldetik azalpen labor-labor bat egin ba dot, ba noa politika aldetik be zeozer oso labor baña al dodan argijen idaztera.

Politika barrenean be, ez dogu borondate on larregi ikusten; orrexegaitik gabiltz beti eztabaidetan eta guda edo burruketan sarturik. Eta gure Euzkadi maitean jazoten jakuna, zoritxarezko eta lotzagarri izan arren, Mundu'ko lekurik geietan be, ber-beraxe izaten da.

Gomutatzen naz ondiño, Postdam'en eta Yalta'n, Stalin, Roosevelt eta Churchill bildu edo batu zirenean, **ZIN EGIN EBELA, EZ ZALA MUNDU GUZTIKO ERRI EDO BAZTERRIK GERATUKO, FASCISMOAK EDO INDARKERIZ ZAPALDUTA.** Gu, euren laguntzalle amurrutuak izan giñan, uste gendulako, eurek be, Azkatasuna eta Demokrazia'ren aldeko zirela, baña ezin dogu aitzu noren azpian eta ardua barik itxiak izan giñen. Auxe izan zan gure "lanakaitik" "emon jakun" sarija. Mundu guztijan dakigu zelan Hitler'ek ipiñi eban Franco besalki-zabalean eta aberatzbide baten erdi-erdi-jan. Franco orduan Hitler'en adizkidea izan ezipazan, Hitler'ek ez eutsen olako mezederik

egingo. Geroago, Hitler'ek Stalinegaz itzarmen bat izenpetu eban eta itzarmen a zala ta, ainbat erri euren menpean sartu eta morroi lez artu ebezan. Baña, andik lazterrera, Ludi'ko bigarren guda asi zan eta "aiñ on ziren adizkide bi areik", alkarren aurka burrukatu eben. Eta bear bada, bere esker ona edo agertu guraz, Franco'k, División Azul izenagaz, Gudari-talde andi bat bialdu eban Rusia'ra, Hitler'en alde burrukatzen. Rusia, Amerika edo Ingalaterra'k ez eben ezer esan gure alde edo Franco'ren aurka. Atzenean, "konservadore" onak ziran lez eta inguru guztietatik ikusten zanetik, komunisten bildur agertzen ziren Ingalaterra eta Amerika eta, atzenean Franco artu eben euren laguntzat, lengo adizkide guztijak euren zorira itxirik... Gerotxuago Franco il zan eta, ordurik ona be, oso gitxi aldatu da gure aberrijan eta aiñ ondo apaindutako trikimaña askoren bitartez, guk or jarraitzen dogu beti burruka baña gure euzkera eta gure azkatasunak ezin bir-eskuraturik.

Lentxuago, DEMOCRACIA VERTICAL genduan eta ainbat urteetan oso zapaldurik bizi izan giñan; oraiñ, eztakit ba DEMOCRACIA HORIZONTAL edo INCLINADA daukagun, ba, bategandik bestera zta alde andirik ikusten. Orduan, gizonak, lotzagarrizko esaera ta egikera askoren bitartez, izen txarra emon eta baztertu egiten ziren. Orain be orixe jazoten da...

Enoa gomutaz-aurreko aldijak arakatzen; ez eta be, orduko ainbeste gogorkeriz eta lotzabakokeriz egindako egikerak azaltzen. Ni ezin naz orren sakon sartu...

Baña, nik esan ez ta be, ondo dakizue askok, Munduan egin diren konponketak, erri andijak txikijak zapaldu eta ondatzeko. Au izan da gure ainbat azken urteetako zoriya...

Begijak zabaldu baño eztago eta argi-argi ikusten da Munduan dabillen lotzabakokeriya. Az-

ken-azkena, Kuwait eta Irak'en artean jazo dana. Danok dakigu Kurdo'en zoriya.

Irak eta Iran'ek izan eben euren arteko 8 urteko gudan, Amerikatarrak Irak'eri lagundu eutsuen ainbat iskillu eta gudarako guztitariko gaiak "emonaz". Ikusten dan lez, orduan Irak eta Amerikatarrak lagun andijak ziran (mezedez, ez ni errijen epailletzat artu, agintarijena baño) baña euren adizkidetasuna ez zan luzerorako. Gero, Amerika'tarrek Kurdo'ak artu ebezan laguntzat, Irak'eko agintarijak ondatu naian. Andik lazter, Amerikatarrak euren egitekoa lortu edo bete ebenean, an laga ebezan Kordo gixajoak euren zori eta amurrututa edo zoratuta egon bear dauan Hussein'en aldi-gaizto pean.

Ba dago eskubiderik olako, aiñ lotsagarri diren egintzak, bata bestearen ondoan jazo daitezzen? Uri "politica" ba da, gizon zuzen guztijak alde egin bear dogu politica egiten dan inguru guztij etatik.

Kurdo'ak, nik dakidanagaitik, bete eben agindu jakeen euren zeregiña. Ordaiña edo sariya? Danok dakigu "emon" jakena...

Argi dago Mundu onetako jaun eta jabea DIRUA dala. Diruak dakar indarra eta indarrak, zori-tzarrez, gogorkeriya, mingostasuna eta odola. Munduan darabilguzen diruak bide zuzenetatik erabiliko ba lira, zenbat gauza eder egin leitekezen. Zenbat diru erre ete da Irak eta Kuwait'en? Eta zenbat erru-bako emakume, ume ete gizon il ete dira?

Ni ondo etsi-erazota nabil azken aldijetan eta bildur naz gizonen artean darabilguzen tartekak ez dirala zuzen eta aiñ arin amaituko.

Okerregijak gara danok eta ez dago iñor gu, aiñ errez, zuzendu gaituanik. Poztuko neiteke iñor, ni oker nagola egiztatzeko aldun ba litz.

KEPA

EMENGO GUDAN

José Mari Arizmendiarieta'k, apaiz izateko IKASKETAK amaitu baiño leen bere, iru urte leenago, eldu yakon, beste zeregin barri bat, uste bakoa. 1936 garreneko oporretan egoan, beste ikasle geienak artzen daben bezela ta, sortu zan egun batetik bestera GUDA, ezertarako izan ez zan guda zatarra.

José Mari Arizmendiarieta'k, apaiz izateko IKASKETAK amaitu baiño leen bere, iru urte leenago, eldu yakon, beste zeregin barri bat, uste bakoa. 1936 garreneko oporretan egoan, beste ikasle geienak artzen daben bezela ta, sortu zan egun batetik bestera GUDA, ezertarako izan ez zan guda zatarra.

Ibilten ziran batera eta bestera, menditontorak ikusten ta zulotuten ta Koba zuloetan edo Atz artetan sartzen, AZTARNA edo zantzuen bat aurkitzeko, gure arbasoen zerbait jakiteko.

Danok dakigun bezela UDA BIZI-BIZIAN, zuzen esanda Uztaillaren 18 militar batzuk, Franco'ren inguruan egozanak edo bere asmoe-takoak orduan au egoan Gobierno Demokrati-koen aurka jagi ziran Afrika iparaldean lenengo ta gero Españeko Naparrua, Araba, Gastela, Leon eta Galizitarrak ere bai.

Gipuzkoa ta Bizkaia, Santander eta Asturias, emen Españeko iparren aurka jokatzeko, batzuk borondatez eta besteak derrigorrean José Mari be, naizta, olako gauzaetan sartu gura ez, deitua izan zan. Baiña gure mutil orrek AKATZ bat eukan oso aundia, gudarako: BEGI BAKARRA ZAN. Iru urtetik aurrera eukan akatz ori, bere lagun batek, nai ez da egiña. Orduan José Mari gelditu zan, gudako ATZEKO lanak egiteko.

Sasoi onetan, gudariak sututeko edo bioztsuteko SORTU zan egunkari barri bat, dan-dana euskeraz, bere izena "EGUNA" da.

Orduan IDAZLE bezela euskeraz, IDAZTEKO jente gitxi egoan gertatuta, orduko idazleak euskera kontuan, esateko apaizak, lekai-deak, eta abade ikasle ebiltzanak ziran. Eguneroko onen ZUZENDARIA izan zan, guk ondo ezagutzen dogun AGUZTIN ZUBIKARAI.

Onela gauzak, gizon enen lagun aundia zan José Mari Arizmendiarieta. Zergaitik? Lagunak ziran urrean jaiokoak ziralako ta ganera alkarregaz ikaskariak ebezeko. Nik irakurri dodan lez, geiago, Agustín'ek lagundu ei eutson bere Jainkoaren DEIA'ri ondo erantzuteko aolko oso zuzenak, itz sutsuak emanaz.

Ara or lagun biak erabatera lanean, GUDARIEI, laguntzen, biztuten, poza emoten, gure lurraldeak gordetzeko etsaien aurka.

Alan emoten eban denborea idazlanean ta bere IKASKAIAK abadetzarako ikasten jarraitzen, ez eban gura DEIARI ez erantzutea. Bere biotza gogor ta BEROA egoan abadetzarako KARRERA ori aurrera eroateko. Orretarako euki eban borondate ARRIGARRIA ta Tinkotua. Iñok ez eutson atzerakarik eragíngo gauza orretan.

Berak eukazan Bilbo'n senide edo lengusu ta osoba batzuk baiña oneik ez eben gura abade izatea. Bera, jente oietatik alenduta ibilli zan. Badakizue, orduko Errepublikano, Komunista, ta C.N.T. beste olako jenteak eukala AMORRAZIO izugarria, eleiztarren aurka.

Ez eben ikusi gura ta arremanik euki olako jenteakaz, abade, lekaide, abade-ikasle, lekaima ta edozein kristau, naita izan senideak. Oraingoak angeruak dira, orduko EZKERREKIN konparatuta. Uzte dot, BARRUAN danak antzekoak izango dirala, baiña beintzat, ez dabe agertzen edo erakusten.

GUDA DESBARDIÑA

Nai ta sutsu ibilli gutarrak animatzen, laister ikusi eban bizkaitarrak ezin leikela IRABAZI guda au. Gudariak ez eukien, naita izan ADORETSUAK emengo mutillak, izkillu edo guda-tresnarik ezer balio ebenik ta ganera gudako agindari eta ordezkooak INPROBIZATUAK ei ziran. Gazte apur bat AUSARTUA ba'zan, au izaten zan buruzagia, edo edozein mandataria izateko jentea.

Onela, buru barik, ezin jakon BORROKA egin ARAUPEKO jenteari. Orren ganetik, militarrek eukezan nai eben beste Egaskin, asko ta onenak.

Askotan entzun neban militarren aotik: Oneik dituk mutillak, eurek baleukiez guk daukaguzan IZKILLUAK, erdiak ere, gu emendik aurrera joan ezin. ITZ oneik sarritan entzuten nebazan Albertian, Saibimendian, Intxorta, Peña Lemona ERASOTZERA joan giñanean. Desbardin izugarria egon alde batetik bestera.

Sei illabete geldi egon eta gero Gípuzkoako ta Bizkaiko mugan, negu guztia esateko igaro ondoren, udabarria asi zanean. Epaillaren asken egunean, ERAZO berezia asi zan bizkaia ATRAPATZEKO.

Bai batetik ta bai bestetik, jota kee, su ta gar, zintzo jokatu arren gudariak atzeraka joan bear izan eben, aurrean eukezalako etsaiak ondo gertatuta, izkillu obeagoekin. Beti atzeraka, ille bí ta ogei egunean, militarrek artu eben Bilbo, ekaiñaren 19'an, ta gero Santander artzeko kontua dantza egitea zan.

Bat ere daunbada bota barik jausi zan Santander ta gero Asturias, au apur bat nekezago. Andik aurrera katua saguakin bezela dantzan edo jolasean joan ziran militarrek.

JOSE MARIEN ARDURAK ETA ESTUTASUNAK

Militarrak Bilbo atrapau ebenean, orduan izan ziran ESTUTASUNIK aundienak asko ta

askoentzat. Militarrek eukien GORROTUA, bizkaitarrentzat pentsau ezin leikena zan. Ez ekien zer egin olako gudari amorrotuakin. Lenengotan beintzat atrapau ba eben puzkatzeko edo birrinduteko AMORRAZIO eukien askok eta askok, nai ta izan agindari GOI-GOIKOAK, zenbat eta gorakoak txarragoak, nik entzuten nenduan gauzak. Susmorik artzen baeben ABERTZALEA zala a, galduta egoan, UKONDO aundien bat ez ba'eukan.

Une onetan José Mari be oso estu ta larri aurkitzen zan.

Bilbo'n, gelditu zan, ta andik egun batzuetara, ASMAU eban IGES egitea emendik edonora, lenengo eta gero pentsau eban IRUÑARA joatea Zelan edo alan, egun baten urten eban Bilbo'tik ta nekez joan Gallo deritxon lekuraño. Gero andik batzuetan oñez eta beste batzuetan burdien baten aurrera joatea asmau eban.

Amabost egunean eldu zan berak gura eban lekura, Iruñara.

Askotan, lo mendietan eginda, iñor konturatu ez daien jakiñez iges-egillea zala.

Bide gurutze guztiak soldau edo poliziz beteta aurkitzen ebazan, ta onelan ARRISKU izugarria zan batetik bestera ibiltea.

Iruñan lagun edo ezagun baten etxean egon zan iru egunean, baiña jente onek aolku bat emoten eutsoen: EZ ZAITEZ ARRISKATU MUGA pasatzen. Frantziako muga ori gudari edo poliziz beterik dago. Ta orrela atrapatzen bazabe FUSILATUA izango zara beste barik, aitaren egin baiño lenago.

Artan gauzak, askenean ASMAU eban barriro biurtzea Bilbo'ra ta emen militarren aurrean aurkeztutea.

Lagun batek ekarri eban Iruñatik Barina garaño ta an gelditu zan gaba pasatzen, Lagunari alegin egin eutsen bertan gaba emoteko baiña adizkide edo lagun onek Bilboraño jarratu eban.

Urrengo egunean, sendi guztiari besarkada bero-bero bana danari emonda, joan zan Bilbo'ra.

Bera eldu orduko, beti egoten zan OSTATUAN agertu ziran POLIZIAK, non dagon José Mari itaunka.

Ostatu orretara eldu zanean atrapau ta eroan eben Larrina'gako illunpera.

Au jakin ebenean etxean, arri edo IZOZ biur-tuta gelditu ei ziran, galdua zala asmau-ta.

Aita, abertzalea zalako ez eban ikararik egin gura, ta arrisku gitxien eukana, bere ARREBEA, bialdu eben, euren seme kutunaren alde, zenbait egiteko.

Onelan gauzak, Bilbo'ko kerezpeko atezaiña ei zan soldadurik txarrena eta agindu aundikoa, ta orregaitik arin ibilli ziran danak.

José Mari'ren ZORIONA egon zan ITZ baten.

José Mariri egin eutsoen ITAUN bat. Itaun oneri, eurek nai eben bezela erantzun ezker. SALBAUA zan, eta beste aldera, itaun oneri, txarto erantzun ezker FUSILATUA izango zan.

Itaun au auxe izan ei zan: ZUK NOREN DIRUREAKIN JATEN DOZU ORAIN? Bere erantzuna: NIK SOLDAUTZAN EMOTEN dausten DIRUAREKIN JATEN DOT.

Ori izan ei zan erantzun SALBAGILLEA.

Erantzun ba-eban: Ni etxeko diruakin bizi naz, edo neure diruakin bizi naz, AMEN esan baiño lenago TIROZ ILLA izango zan. Bada-kigu, Jainkoak, berak gorde gura dauana, nai le-rrero okerretan idatzi, aurrera joango da.

Onela izan zan gure José Mari'ren ZORIONA, ta bere BIZIA aurrera jarraitzea. Jainkoak ez eban gura gure mutil zintzoa ta zuzena ondiño bestaldera edo betikotasunera joatea BERE ZORIONA ARTZEKO.

Gero LENIZ Arane'ko ONGILLEA izan zana onela bizirik gelditu zan ta LENIZ'ko Ibarrek kontuan eukiko dau gure On José Mari'k ogeitaa-mabots urtean egin eutson mezedeaa.

ON JOSE MARI BURGOS'en

Ainbeste estutasun izan eta gero, ara or mutil ori Soldau jantziakin, lenengo bialdu eben Bilbo'tik Donostira eta andik Burgos'era.

Emen leenago lez, ez eben bialdu mendiko LUBAKIETARA, bertan gelditu eben nagusiak, soldauen ATZEKO lanetan.

Arazoak onelan urtenik, bere zeregiña ondo beteta orain jarraitu izan eban, apaitzarako ikasketak jarraitu ta aurrera joan.

Asmatu eban berak bakarrik egitea ikasketa oiek, baiña eziña izan zan. Baimena eskatu eutson bere Gazteiz'ko Gotzaiñari, ta onek ukatu egin eutson, bakarrik ezin leiketela IKASI, abaderen bat bear ebala gauzak zuzen egiteko.

Onela, Burgos'ko Kanonigo bat artu eban la-gun bezela, ta onela URTE bi aurreratu eban ikasketetan. Azterketa guztiak BERGARA'n egin ondoren ondo irtenda, ezelako KULEPE barik, ori ez bakarrik ondiño ezkerak emonda naguiek olako IKASKETA-AGIRIAK onak atera ebalako.

Guda ori amaitu zanean, biurtu zan berriro Gazteiz'ko APAIZTEGIRA. 1939'ko urtean.

Emen jarraitu eban urte bi inguruan ikasketak amaitzen.

Berrogeita batgarreneko Urtarrilla batean izan zan bere errían BERE LENGOKO MEZEA. Kanpoan egun oso zatarrak, itsuzia, euritsua txingorra, otsa, ta AFRONTUA ugari egoan, baiña José Mari'ren barrua bero-bero geiago, pozik eta sututa egoan, Jainkoari, olako eguna emon eutsolako ezker onak eta aundiak EMONAZ. Orain betiko bizitzan zorionean izango da Gipuzkoako lurraldean ainbeste lan egindako APAIZA.

ETXEBERRITAR ISIDOR

O GETIABAKAREN ALDIZKARIA

Bazkide ta adiskide begikoak:

Urteko Batzar Orokora, Epaila'k 16'an, ospatu genun.

Ekintzen artean, Meza Donea ospatzea ere ba'genun asmoan, baiña eragozpenak izan genitun.

Elkarte'ko Lendakari, Arzelus'tar Amale'k zuzenduta, Dr. Camino Idaztitegian, goizeko amaika t'erdietan, asi zan Batzara.

Eguneko egitaraua:

1.^a Lengo Batzar-agiria irakurri eta onartzea, egoki ba'da. Guziak onartua.

2.^o 19904ngo. Ilbelta'k batetik, Lotazila'k 31 arteko ekintzen adierazpena eta onartzea, egoki ba'da.

Adierazpen au irakuritakoan, "Galde eskaerai" bide emanaz, 9Ingo. Loreila'tik aurera, Euzkadi'ko Udaletxe, Batzoki eta Alkartetxe'etara bialtzeko asmoa degun idazkia irakuri zan.

Au ere guztiak onartua.

3.^o Diru gora-berak.

Mugika'tar Imanol, diruzaiñak diru-garbiketa eman zun, guzien oneritziz.

4.^a Batzorde beritzea, egoki ba'da.

Idazkariak, 15gn. lege-atalak dionez, aurten, Diru-zain eta Maikoa aldatzea dagokiola adierazi zun eta lengo urteko Batzarrean-egin ez zanez, baita Lendakaria eta Idazkaria ere.

Arzelus'tar Amale, lendakaria, Mugika'tar Imanol, Diruziaña ta Urkiola'tar Xabier, Maikoa, berean jaraitzeko, eskatu zun-Idazkariak eta eraberean, berak Idazkaritza utzi naia adierazi.

Lendakari, Diru-zain eta Maikoa'ri buruz, Idazkariak-azaldutako xedea, guztiak onartu zuten, baiña idazkaritza ez zan oneritzi; bere lanean jarraitu bear izango du beraz.

5.^o Galde-eskaerak.

Lenengoz, Euzkadi'ko Endore, Batzoki ta Alkartetxe-tara bialtzeko gertu dan idazkia irakurri zan. Idaz-lan ortan, aurrerantz erabili bear litzaken Euzkera arazoa aztertzen da. Idazki au, Loraila'n izango diran Udal-Autezkunde ondoren bialiko ditugu.

Guziak onartua.

Gero, Elkartea'ri dagozkion zenbait ga aztertu ziran. Batez ere, Euskerazaintza, Kardaberaz eta Euskerazaleak Erakundeekin ditugun ar-emanak adieraziaz eta onek dun garrantzia ikusirik, ar-eman au sendotzeko degun asmoa. Gai au ondo astindu genun eta asmo berriak artu ere. Asmo auek egizatzen sayatuko gera, astiro.

Besterik gabe, ordu batean amaítu zan Batzarra, datoren urtean, berriz elkartzeko zoria izan dezagun opa izanaz.

Ondoren, "Dana Ona" Jatetxean elkarrekin, bazkari goxoa izan genun.

Batzarrera eta bazkaltzera etorri ez ziñatenoi, egun atsegin, goxoa igarotzeko zoria galdu zenutela esan bearrean gera. Batzarrean, galde-esakerak zatian, batez ere, eta bazkaltzerakoan, EUZKERA'RI buruz erabili genitun gayak, oso onurakorrak izan ziran eta. Au guzia euzkal giro ederran.

Etorri ziran bazakideei, gure eskerik beroenak, eta Bixente Latiegi, Iakakortaxarena'tar Txomin ta Salbaredi'tar Demetrio'ri, zer esanik ez.

Bertan izan ziranai, Aita Txomin'ek "Rh negativo de los Vascos" izeneko idaztia banatu zien.

Lan au eta aita Txomin'ek egiñak ditun beste idazti biñak, urengo aldizkarietan aztertuko ditugu.

Bazkideentzat, adierazpen edo oroigarria: 1991'ngo. ordainsaria, zuzenbide onetara bialí zenezateke:

ARBASOEN-IZKUÑTZA-ZALEAK

01 x 1442 - 110 - 0- aurrezki-guttuna

Donosti'ko - Isabel II Ordezko Kutxa

Bazkide berriak erakartzeko lana, benetan eskertuko diezuegu, Bazkide guzioi. EUZKERA'k beriz...

Mugika'tar Imanol'ek, asitako itzaldi-aroa jarraituz, euzkeraz eta erderaz, bi itzaldi jakingari eman zizkigun. "Euzkeraren-sustrayak" gayetzaz.

Dr. Camino Idaztitegian lenengoa (91-3-8) eta "Casa Cultural Okendo" aretoan, bestea.

*

Euzkera garbitzeko lanari jarraituz, sartu dizkioten erderakadak kentzen edo adierazten beñepein, sayatuko gera. Gai ontan egiño deguna, aldizkarian azalduko degu.

Lan onetan laguntzeko kemena dezutenok, Arzelus'tar Amale'ri 287130 urutizkiñera deitu.

ABERTZALEAK ALKARTZEKO ORDUA

Guztiok goratzen dogu alkartasunaren indarra eta erriaren onerako alkartuta jokatzeari genduke. Eta bear-izan au argiago ta biziago agertzen jaku auteskundea egiten dan orduan: Gauza ederra benetan, euskaldunak ondo alkartuta, udaletxeetan eta Aldundietan batera jokatzea eta orrelan erriaren arerio, agirian naiz erdisillean, diranai errez irabaziko geunskioe, erria aurrera aterateko.

Baiña eskuldunak izakeraz nortasun aundi-koak gara eta, orrez gaiñera, bakoitxak berea zaintzen zaleak, eritxiak diranean be bai. Jokera orren oiñarria izan daiteke kondairan izan dogun baserri-bizitza. Gure baserria burujabe izan da eta iñongo ikuturik etorri jakonean, minbera. Gero etxeko jauna errigintzara sartu da, gaurko berbea artzeko, demokrazi-jokoa onartu dau, baiña gure demokrazia beti izan da gatxa, eta orrexegaitik, bere sasoiaren ederrena eta erredugarria.

Oiñarria orretan dagoan ala ez eztabaidatu leiken gauzea da, baiña argi bai agertzen dala auskaldunak alkartzen ez garala zaleak, edo beintzak ez dala erreza gure artean alkartasuna lortzea.

Alderdiak baiño gorago aberria jarten ikasi bear dogu. Buruz ori onartzen dogu, baiña egiteetara jatsi bear danean aiztu be bai. Bear ba'da azkenengo auteskundean agertu da zerbait aber-tzaletasuna gorago dagoala alderdia baiño, eta orrek guztiok poztu bear gaitu. Gaur agintaritzara sartu dira alderdiak, gitxienez Euzkadi-maillan, orrelan jokatzen dabela esan lei: Guztien elburu lez agertzen da Aberriaren buru-jabetza osoa lortzea, urteen joanean galdu doguzan eskubideak eskuratzea.

*

Elburu orretara eltzeko bideak eta uneak ez dira bardiñak. Guztiok gogorkeria alboratu arren, politika-jokoan bertan be ez goaz batera.

Oiñarri on bat dogu oraingoz Araudia, beronek eskintzen dauzan aukerak lortu arte beintzat.

Araudiak ekarri dauzan onurak, jaurketarloan naiz ekonomi-arloan naiz jakintza-bideetan, benetan onartzekoak dira eta oraindiño eskubide-aldatze batzuk egin barik dagozan ezkerero, Araudia oso-osoan bere bidean jarrea, lenengo elburua da eta lortzen diran gauza guzti orreik ziurtasunaz beteten ikusten dogunean orduan eskatu al izango da gorago mailla bat.

Eta beste eupada edo erronka ozen bat, batez be aspaldiko urteetan, Europa dogu. Beti esan dogu Europa'n dan izkuntzarik zarrena dala gurea, eta orregaz esan gura dogu Europa'ko erririk zarrena garala. Orrek ez dauku emoten eskubide berezirik, baiña bai berba egiteko aukerea: Argi agertu bear dogu, eta agertzen dogula uste dot, guk nai dogun Europa zelakoa dan, ez laterri zapaltzailleena, erri bizi eta bizkorrena baiño.

Olako errien artean guk izan geinke, erri lez alkartzen izten badauskue, Egoaldea, Iparraldea ta Naparroa esan gura dot, gure nortasuna, baiña ez laterrien arteko indar-munduan.

Olako European dago gure lekua.

*


Ozen entzun dogu esaldi au: "Abertzaleak alkartzeko ordua eldu da".

Esaldi ederra benetan, eta egiteetan be beteten doala ikusten dan esaldia. Ori agertzen dabe Jaurketarako alkartu diran iru alderdiak, ori agertu bear leukee alderdi orreik Udaletxeetan eta Aldunditan be alkartuta jokatuz. Eta egitez alkartu ezkerero, bear ba'da alkartasun sakonagora be jo al izango da.

Alkartzeko ordua eldu da. Alkartu gaitez.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
 Kutxa. Bere berbea bete
 eta zure bear-izanak
 ulertzen dauzan Kutxa.
 Etorkizunera zabalik dagoan
 Erakundea, etenbako
 gora-gogoagaz
 bere erriko jenteari
 laguntza-gai osoak
 eskintzen dautsozana.
 Beti dago zugandik ur
 izkuntza bakar baten
 alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa